

# Noaua !!



Hauteskundeetan  
izandako emaitzak



Atalluko korapiloa,  
askatzear



**ERRETEGIA**  
**ARRATZAIN**  
**TOLARE-SAGARDOTEGIA**

Arratzain Zahar  
 Baseria  
 Telf: 943 58 09 74  
 20170 USURBIL



- Urtarriletik apirila arte sagardotegia irekita. Urte osoan erretegia.
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- 150 lagun, eserita nahiz zutik

Orain, herriko sagardoa Iruin  
**ALKARTASUNA KOOPERATIBA**

Alkartasuna kooperatiban  
 salgai!

Etorri Usurbilgo ekoizleen  
 sagardo onena dastatzera!

Araeta

Saizar

Urdaira

Aginaga


Gorostidi

Aialde berri



Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14  
 E-mail: [alkartasuna@fcae.org](mailto:alkartasuna@fcae.org)

**Apirila hasieran berriz irekitzen dugu,**



dodipetto

ALPHABET

absorba



**hurbil zaitezte udaberriko moda ikustera!**



**TUC - TUC**

**TRUPIAL**

**PAZ RODRIGUEZ**



# Txirrikitutik

Duela 20 urte inguru gure herriko erdiguneak itxura Dhau zuen. Estampa polita ezta? Gaur egun berriz, argazkia leku berdinetik aterako bagenu, gune hau guztiz aldatu dela ikusiko genuke. Garbi dago urteak aurrera doazen neurrian gure ingurunea aldatzen doala.

Olarrondoko auzoa duzue Salbatore elizaren atzealdean ikusten duzuen etxe multzoa, gutxi gorabehera gaur dagoen moduan bezala, eta hauen atzean berriz, Agerreazpi baserria, Olarrira doan Puntapax aldeko bidexka eta inguruko zelai eta baratzak. Hemendik gutxira, ordea, paisai zoragarri honek aldaketa nabarmena jasango du, bertan babes ofizialeko etxeak, tasatuak eta libreak eraikiko baitituzte.

Artzabal baserria eta Arriate etxea ere hortxe ageri dira baina ez gaur egun dagoeneko eraikita dauden etxeak. Elizaren inguruan berriz, kale nagusiko etxeak ageri dira: Sarobe Jauregia, Elizalde, Erretoretxea, Erreroenea, Juandeuntzenea txiki, Juandeuntzenea handi, Sutegi berri,... Salbatore eliza berriz bere horretan mantentzen dela ikus dezakegu eta honen atzean berriz frontoiaren



Egile ezezaguna, 1980. hamarkada  
Kaleberri, Noaua! Kultur Elkarte

sabai zaharra. Askatasuna plaza ere oraindik eraiki gabe ageri da. Bertan lehen zegoen aparkalekuan Udalaren mikrobuz txikia ikus daiteke. Zelako oroitzapenak ezta?

**OHARRA:** Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan gaude. Bestela, 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

## Noaua!!

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usturbi (Gipuzkoa)  
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02  
elkartea@noaua.com  
erredakzioa@noaua.com  
publizitatea@noaua.com  
Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea: Imanol Ubeda  
Publizitatea: Jon Rueda

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818  
Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:  
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

## Aurkibidea

ZUTABEAN, LUIS ARANALDE \_\_\_\_\_ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ 6. ORR.

AURREKONTUEN INGURUKO ANALISIA \_\_\_\_\_ 10. ORR.

HAUTESKUNDEEN EMAITZAK \_\_\_\_\_ 12. ORR.

NOAUA!KO BATZAR OROKORRA \_\_\_\_\_ 15. ORR.

Martxoaren 27an egingo  
dugu NOAUA!ko Batzar  
Orokorra Udarregi Ikastolan



NORMALTASUNA LUZURIAGAN \_\_\_\_\_ 16. ORR.

JUDO TALDEAK BIKAIN DARRAI \_\_\_\_\_ 17. ORR.

NOAUA! TXIKI ORRIALDEA \_\_\_\_\_ 18. ORR.

AGENDA KO EKITALDI GARRANTZITSUENAK \_\_\_\_\_ 22. ORR.



Usturbi Udal



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal  
Herria!



## Zutabea !!



LUIS ARANALDE

## Gautxoriak

**E**z da denbora asko entzun nuela: azken sei urte hauetan gau osoa kanpoan pasatzen duten gazteen kopurua bikoiztu egin omen da. Ziotenez, estatu osoan milioi bat gazte ba omen dabil kalean goizeko 6:00ak igaro ondoren. Hauetatik % 34a ordu hori pasata sartzen da etxean. Duela 6 urte, % 8<sup>a</sup> besterik ez omen zen. Eta jakina, ordu horietan oheratuz gero, jaikitzeo ordua ere atzeratu egin behar: %37ak lo jarraitzen du 14,00tan.

Betidanik izan du gauak erakartasun berezia gaztearentzat. Garai batean, akelarreak eta gainerako festak gauaz burutzen ziren; ilargi betearen pean biltzen ziren neska mutilak beren juergak egiteko. "Akelarre" pelikula lekuko. "Mutil horrek arratsian/sentitzen du bihoztian/ ezin egona etxian" kantatzen zuen Uztapidek. Baina, Uztapideren garaian "ilunabarrez bukatzen ziren/kanpoko soinu ta dantzak/gero handikan etxera/korrika saioak latzak" (M.Uztapide).

Gau pasak badu magia berezia; ikastetxetako heziketa lanetan jardun garenok ondotox dakigu 11-12 urtetatik hasita gure gaztetxoaren haize guztia gau pasa egitea zela ikastetxetik kanpo antolatzen genituen irteeretan. "Iniziazio" errito gisa zen haientzat.

Gurasoen buruhauste nagusienetakoa bihurtu da seme-alaben asteburuetakoa jokabide hau. Ez dute

arrazoi faltarik, ez da harriztekoa. Jakin badakite gauak zenbat tranpa jar diezazkiokeen gazteari: droga, alkohola, errepideetako arriskuak... Alkoholari dagokionez: % 34ak gehiegi edaten du nonbait. Alkohola eta droga ez dira, ez, aholkulari onak gaztearentzat. Oraindik gogoan dut kazetari batek kontatzen zuena: galdetu omen zion bere ilobari ea zer moduz igaro zuen, bada, asteburua eta ilobaren erantzun bitxi hau: "¡Guay! pasa dut, osaba, ez naiz ezertaz oroitzen". Ulergaitz egiten zait ongi pasatzeko egoera inkontziente batean egon behar hori. Zer ahantzi nahi ote dute, bada, gure gazte hauek? Konplexuak? Frustrazioak? barne hustasuna?

Gazte fenomeno horrek famili giroa aldatu du gutiz; asteburuak izan behar luke gune egokiena guraso eta seme-alaben arteko lokarriak estutzeko, elkarrizketa luzeak eta gozoak bultzatzeko, lanaren presiorik gabe. Baina, larunbata gaua eta askotan ostiralekoa ere kanpoan pasa duen gaztea ez da gai dinamika gozo horretan sartzeko. Bere kezka nagusia errekupeztatzea da.

M.Lasartek esaten zuen "gaur gurasoa nekatzen da/umeak ondo azitzen/ eta askotan gauza horrekin/ez du asko luzitzen". Halere, guraso eta hezitzaileok, animo!, jarrai zuen lan dotore horretan, zerbait ona irtingo da eta.

Zutabegileak: Ainhoa Azpiroz-Aitor landaluze-Jakoba Errekondo-Luis Aranalde-Nerea Zinkunegi-Idoia Torregarai

## Ika-mika !!

## Luis Mari Ormaetxea eta aurrekontuak

**U**dalean onartu berriak diren aurrekontuez bizpahiru zehaztasun azaldu nahi dugu. Lehena, gure iritzia entzun izanagatik poztu garela esateko, erabakitzeo ahalmena duten eserlekuetatik izan ez bada ere. Entzun diogu, kontuan hartu ezin dugulako esan. Izan ere, usurbildarrak ordezkatzeko dituzten beste talde batzuk ez bezala, UHL ez baita kontsultatua izan aurrekontu horiek osatzerakoan. Beraz, udal hauteskundeetan boto gehien lortu zituen taldea baztertuta izan da, berriro ere.

Bigarrenik, konstituzionalistekin bat egitea leporatzen diguzu aurrekontuekiko kontrako jarrera azaldu dugulako. Argudio sinplista horretan ez gara sartuko, herri honetan ondotoxo ezagutzen dugulako elkar.

Horrenbestez, inork ez du sinesten haien eta gure artean hitzartzerik dagoenik. Hori bai, ados egon gaitzke puntu batzuetan. Esaterako, langileei soldaten inolako igorzarik ez aurreikustea kritikatu du PSOEK; eta guk ere bai.

Bestalde, ez duzu ulertzen nolatan jarri gaitzkeen preso urrutiratuen senideentzat dirulaguntzak jasotzen dituen aurrekontuaren aurka. Jakin, ondo asko dakizu, ez dela hori izan arrazoia. Pentsatu nahi dugu zu eta zure taldearen konbentzimenduz jarri duzula diru-partida hori eta ez gu "kontentatzeko". Edozein modutara ere, gu pozik, oso pozik izango ginatke, egun batean partida hori aurrekontuetan egon beharrik ez balego. Horrek esango nahi luke,

Espainiako eta Frantziako gobernuak legea betetzen dutela eta senideek ez dutela hain uruti joan beharrik bere familia ikusteko. Are eta gehiago poztuko gintuzke, inora joan beharrik ez balukete.

Amaitzeko, Usurbil euskaldun baten alde ekiteko grina erakutsi duzu gutunean, baita PSOEko zinegotziak epaitegien aurrera eramaten bazaitu ere. Desadostasunak desadostasun, jakin ezazu, borroka horretan zure alde izango gaituzula. Gainera, gu ezezik, usurbildar gehienak ere alde izango dituzula uste dugu, duela urte gutxi herriko alkatea, intsumisioaren alde egiteagatik, bere kargutik kendu zutenean gertatu zen bezalaxe.

Usurbilgo Herri Lan

# Jexux Artze Taldeak Udalaren esku utziko du “Ez Dok Amairu” izeneko erakusketa

**H**itzarmen batek batuko ditu Usurbilgo Udala eta Jexux Artze Taldea. Akordio honen ondorioz, Udalak bere gain hartu du “Ez dok amairu” izeneko erakusketa, iaz izan genuen kultur ekitaldi garrantzitsuena. Hitzarmen-ekitaldia martxoaren 12an egitekoa zen, baina Madrilgo sarraskiaren aurrean, hitzarmen-sinaketa atzeratzea erabaki zen.

Jexux Artze Taldeak 2003an Jexux zenaren urteurrenaren inguruan ekitaldi ugari antolatu zituen: “Ez Dok Amairu” izeneko erakusketa, emanaldi eta kontzertuak, hitzaldiak, Jexux Artzeren biografiaren argitalpena...

Gerora, Taldeak “Ez dok Amairu” izeneko erakusketako hainbat material eta Xabier Lakak Artzeren oroimenez egindako eskultura Usurbilgo Udalari emateko borondatea azaldu zuen.

## Ondare baliotsuak

Udalak esker onez hartu zuen taldearen eskaintza, eta, bi aldeen artean hitzarmen hau sinatzea erabaki zen.

Hitzarmenaren helburua Jexux Artze Taldeak Usurbilgo Udalari “Ez dok Amairu” erakusketako ondareak eta



JEXUX ARTZE TALDEAK EGITARAU OPARDA  
ESKAINI ZIGUN IAZ.

Xabier Lakaren eskultura ematea eta emate honen baldintzak arautzea da. Honen truke, Usurbilgo Udalak ondareak egoki zaindu eta erakusketa beste hainbat erakundetara eramateko konpromisoa hartu du.

## Usurbilgo mugetatik aterako da

Hain baliotsuak diren ondare hauek hartu ondoren, orain, Udalak erakusketa Usurbilgo mugetatik atera eta Euskal Herriko zein Euskal Herriatik kanpoko hainbat tokitara eramateko asmoa du, modu honetara talde honek egin duen lana eskertuz eta Jexux zenaren izena Usurbildik kanpora eramanez.

## Hitzarmenaren helburua

Jexux Artze Taldeak Udalari “Ez dok Amairu” erakusketako ondareak eta Xabier Lakaren eskultura ematea eta emate honen baldintzak arautzea. (Erakusketaren balio ekonomikoa 15.000 eurokoa da).

## Ondareak ematearen helburua

Ondareak egoki zaindu eta erakusketa beste hainbat erakundetara eramateko.

## Baldintza ekonomikoak

Jexux Artze Taldeak aipatutako ondareak doan ematen dizkio Udalari.

## Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmenak ez du iraupen mugarik. Hitzarmenaren helburu eta baldintzak beteko ez balira, hori egoki arrazoitzen duen txostenean oinarrituta, bi aldeen partetik hitzarmena eteteko aukera egongo litzateke.

## Erakusketa-baimenak

Jexux Artze Taldeak Udalari ondare hauek ematen dizkio Udalak beste hainbat erakunderi erakusketa antolatzen uzteko. Ondare hauen erabilera publikorako (argazkiak, diskoak...) Udalak dagozkion pertsona eta erakundeei baimenak eskatu behar dizkio, izan ere, orain arteko baimenak Usurbilen egin zen erakusketarako bakarrik baitziren.

## Luis Llach dator maiatzean

**M**aiatzean, Jexux Artzeren mheriotzaren bigarren urteurrenean, ekitaldi-sorta berri bat iragarridute Jexux Artze Taldeko kideek.

Honakoan ere, garrantzi handia eman diote berriro XX mendeko hirurogeigarren hamarkadako kulturari, oraingoan Katalunia eta Euskal Herriaren artean izan ziren harremanak gogoratu. Kontutan hartu behar dugu Artze anaiek txalaparta joaldiak egin zituztela

Katalunian.

Maiatzak 4, asteartea

Belen Oronozen hitzaldia

“Gazteri berria, kantagintza berria” liburua argitaratu zuen 2000. urtean. Bertan Euskal Kantagintza Berriaren (Ez dok amairu) eta Nova canço Catalana-ren (Els Setze Jutges) arteko azterketa konparatibo bat egin zuen.

Maiatzak 8, larunbata

Hirurogeigarren hamarkadan sortutako Els Setze Jutges taldeko partaidea izan zen eta Euskal



Herriko abeslariekin harreman onak mantendu zituen. Oraindik diskoak argitaratzen jarraitzen du eta ia urtero izaten du emanaldiaren bat Euskal Herrian. Eguraldi onarekin, Idi-demako plazan egingo da kontzertua; eguraldi txarrarekin, kiroldegian.



IMANOL  
GOENAGA

Txokoalde

## Berriolan geldialdia

**K**aixo auzotar agurgarriok, hemen gaude oraingoan ere. Ez dira oraintxe garai onenak, egia esan. Madrilgo atentatuak eraginik izan zuen auzoan, Berriolako langileek 15 minutuko geldialdia egin zuten martxoaren 12an, eguerdiko 12:00etan. Baina gai hauetaz nahikoa hitz egin da eta auzoko beste kontuetaz mintzatuko gara.

Egia esan, gaztetxean egin behar dugun kontzertu bikain bati buruz hitz egin behar dizuet. Bertan lau alde izango dira "Oztopo", "El Invencible Talbot", "Adult Oriented Punk" eta "Nuevo Catecismo Catolico". Esan "Oztopo" taldearen lehenengo kontzer-



tua izango dela eta "Adult Oriented Punk" taldea berriz madrildarrak direla giran dabilta inguru haue-  
tan "Nuevo Catecismo Catolico" talde ezagunarekin eta "El invencible Talbot" taldearekin. Kontzertu honetan sarrera jarriko dugu talde madrildarrari diru laguntza moduan, 3 eurokoa. Beraz gonbidatuta zaudete.

Azkenik esan, San Estebango jaietako komisioren bilerak hasiak direla dagoeneko. Aurtego festak antolatzeko parte hartu nahi izanez gero, azaldu.

Besterik gabe agurtzen naiz, hurrengo baterarte.

## Hau da komeria

**H**orrenbeste emanaldi horrenbeste Hlekuetan eta nik nola ez beti zer edo zer egiteko... Bai, bai "Kutxidazu Bidea, Ixabel" antzeslana oraindik ez dudala ikusi. Martxoaren 12an izan zen Oiardon eta ni joango ote nintzen edo ez jakin gabe, hau da komeria!!!! Gainera jende guztiak ikusia duenez denek esan didate mundiala dela eta ni hementxe tripak jaten.

Aurreko baten Ixabel Agirresaroberekin hizketan eta azkenean zera pentsatzen nago, emanaldi bat nire etxean eman beharko dutela!!!!

Eskerrak oraindik honelako emanaldiak egiten diren eta halako batean ikusteko aukera izango dudalakoan...

Gainera idatzi honekin eskerrak eman nahi nieke Kutxidazuko taldeari honelako emanaldiak ematen jarraitzen dutela-



ko!! Hau baita benetan komunikazio bizia herritarrentzat!!!!

Mila esker denegatik.



ANA  
URDANGARIN

Kaleberri

## Beldurgarria

**A**gur bero bat denoi. Auzoko kronika Aniri idaztea tokatzen zaidala esateko beti deitzen didate eta garaiz, baina ni beti azken momentuan ibiltzen naiz eta ez dakit nola demontre egiten dudan. Halere, oraingo honetan berandu ibiltze horrek gaia mahai gainean jarri dit eta ezin diot beste bati heldu: Madrilgo atentatua.

Hitz gutxitan gertatua adierazi beharko banu kosta egingo litzaidake; beldurgarria, sinestezina, sinesgarria, lotsagarria, ...

Beldurgarria izan denik ezin uka. Nik berri guztiak irrati bidez jaso nituen eta seguruenik askok eta askok bezala hildakoen kopuruari jartzen nion arreta berezia.

Kopurua igotzen zihoan heinean, sinestezina egiten zitzaidan entzuten ari nintzena. Sinestezina gertatzen ari zena

gertatzen ari zelako batetik eta bestetik berriz, erakundeak egina zenik onartu nahi ez nuelako. Aldi berean, sinesgarria egiten zitzaidan besteek egina zela pentsatzea.

Sentimentu guzti hauek barruan nituelarik, lotsa ematen zidaten gertakizunaren inguruan egiten ari ziren irakurketa guztiak, nahiz komunikabideetan zein inguruan entzundakoak izan. Eta guztiak esaten dudanean guztiak da; batzuek inpultsoak eraginda azkarregi hitzegin zutelako, besteek inoiz ez bezalako irakurketak egin zituztelako, azken batzuk gezurretan aritu zirelako, ...

Oraingo honetan tarta zatia denentzat egon da eta inork ez du tarta zatia baztertu, denek hartu dute beren zatia. Espero det norberak bere jarrera balortuko duela eta hanka sartzeak onartu eta zuzenduko dituela. Aio eta ondo izan.

Kalezar



MAIDER  
MAKAZAGA

## Badator udaberria

**K**aixo denoi! Otsailaren hasieran eguraldi zorokak izan genituen, benetan gehiegizkoak. Esaera zaharrek dioten bezala: "kandelari hotz, negua motz", "kandelari bero, negua gero".

Gure aurreko aitona-amonak ez ziren makalak, ez zuten ikasketa handirik izango, baina bai azkarak zirela. Ikasgai ugari ditugu beraiengandik jaso beharrekoak: tenporak direla, hainbat eta hainbat ezaera zahar... Ondo begiratzen badiegu, egia handiak diotenak. Bitxia da benetan bakoitzaren esanahia, etxean gorde beharreko liburuxkarik politena, seguruenik.

Lehen esan bezala, hasiera epela izan bagenuen ere, bukaera aldera erakutsi dizkigu hortzak. Sumatu dugu aldaketa ederra! Aurten, gainera, egun bat gehiago izan denez, ederki aprobetxatu du, alajaina! Hotza, txuria eta polita, herri guztiak maindire txuriz jantzita. Benetan bikaina argazkiak ateratzeko; panpinak eta pelletak egiteko; umeak, gazteak eta ez hain gazteak jolasteko; umore puntu bat emanez, gutxitan izaten delako.

Benetan harrigarria elurrak ematen duen argita-



suna. Naturak hainbeste gauza eder ematen dizkigu! Ez dakit eskerrak emateko gai garen edo baloratzen dugun.

Mendi aldera iritsi bagara, manta lodi batekin aurkitu gara: Adarra, Ernio, Larraitz, Txindoki eta inguruko mendi guztiak. Ez zegoen Belaguara joan beharrik eskiekin ibiltzera. Pentsatzen dut jendea saiatuko zela ondo pasatzen.

Hala ere, egunak pasa ahala, elurrak urtzen ari zaizkigu, eta udaberria gainean dugu. San Jose jaiekin batera emango diogu ongi etorria. Gure inguruak eguzkiaren berotasunak gozatu eta apainduko ditu. Hurren arte!

Atxegalde



IONE  
EIZMENDI



ZALOA  
LEOZ

Santuenea

## Hauteskundeengatik ote?

Normalean arazoak izaten ditugu gure Nauzoko kronika idazteko orduan. Zaila izaten da zertaz idatzi asmatzea edo zerbait gertatu dela jabetzea. Pentsatzen jarri eta lehenengo ideia horrelakoa izaten da. Zer gertatu da ba hamabostaldi honetan? Beti betikoak gabiltza joan etorrian eta ez da ezer berririk gertatzen, ez da inor berririk izan gure auzoan... Askok eskertzen dugu auzoko norbait etortzen baazigu gai bat duela NOAUA!ko kronikan idazteko esanaz.

Gaurkoak ere arazo berdinen aurrean nengoela pentsatzen ari nintzela azken egunotan gehiegitan entzuten ari naizen kontu bat iritsi zait. "Gaur e kontrolez josia deu herria; lau puntu desberdinetan de jarrita eta herria erabateko kontrolpean dola bado esantia". Guardia Zibilaren presentzia gehiegitan izaten dugu azken aldi honetan, mendi aldeko bideetan, herri-

ko sarrera desberdinetan, kaxkoan bertan, elikopteroan...

Elikopteroak ikusten ere ohitutzen ari gara. Pasa den egunetan ikusi ahal izan dugu gure auzotik oso gertu nola hartu zuen lurra. Santuenetik San Esteban aldera dagoen eskronbreran izan zen.

Pentsatu nahi dugu hauteskundeak izango direla honen arrazoia, baina nik behintzat hauen bisita baino nahiago dut ezer ez kontatzekorik izatea.



## Ez harritu

ALAZNE  
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Denok dugu zirkulazio arau berrien inguruan nolabaiteko ideien bat. Denok izan dugu txaleko erreflektante horren berri: ekainetik aurrera derrigorrezkoa izango dela kotxean eramatea eta kotxetik irteterako soinean jantzita eraman beharko ditugula. Izan ere, oso arriskutsua da, gauez, kotxetik inolako "adierazgaririk" gabe ateratzea.

Arau hau, zabaldu egingo nuke nik. Badakit, hainbeste aldiz eskatu ditugun farolak ez dituztela jarriko (etorkizun urrun batean agian) eta hemengo bideetan, zazpirak aldean une arriskutsu asko izaten ditugu. Dirudiena baino jende gehiago ibiltzen da paseatzen, horrez gain, sendategikoak ere ordu inguru hauetan itzultzen dira eta hauei ez zaie gehiegirik axola bide ertzetik edo ez hain ertzetik joatea. Askotan ia gainera joaten zaren aste ez zara konturatzen inor dagoenik.

Hau dena dela eta, ideia ona litzateke



argitasun handirik ez dagoen zonaldeetan, oinezkoek txaleko erreflektante horietakoak ematea.

Baina, udaberria iristear dugu, ordua aurreratuko digute eta argitasunarekin, hurrengo negurarte behintzat, farola eta taleko kontuak ahaztu egingo zaizkigu. Ez nintzateke batere harrituko.



## Etxebizitzaren arazoa

**K**aixo denoi! Txoko honetan agertzen naizen lehenengo aldia dut gaurko hau eta hasteko egungo gazteon arazo bati buruz hitz batzuk esatea/idaztea pentsatu dut.

Etxebizitzaren arazoarekin egunero egiten dugu topo. Nonbait bizi behar dugu eta oinarrizko eskubide bat omen da etxebizitza duin bat izatearena, baina egun, hau lortzen ez da lan samurra. Prezioei begiratuz gero, behintzat, bigarren eskukoak eta zaharrak, 180.000 eurotik (30.000.000 pta) behara ez dago ezer eta berriei begiratzeak berriz begietan min ere egiten du, gutxienez 240.000 euro (40.000.000 pta) eskatzen dituzte hauengatik.

Beste aukera bat alokairuarena dugu, baina era honetako etxe gutxi egoteaz gain, hauen prezioak ere...

Hau horrela izanik, inoiz pentsatzen jarri



al zarete gure auzo honetan ere zenbait etxebizitza huts dauden?

Bat batean 8-10 bururatzen zaizkit. Eta alokairuan ere zenbat ote daude?

Nik uste gai honi buruzko hausnaketa txiki bat egin beharko genukeela denok.

Aginaga



**AINHOA  
SALSAMENDI**

## Errausketa-plantarik ez

**J**oan den martxoaren 4ko hitzaldian, Errausketa-plantei buruzko hainbat argibide eta zehaztasun eman zizkiguten Amasa plataformako kideek, aurkezpen txukun eta landuan.

Administrazioak ez bezala, Amasakoek lan bikaina egin dute informazioa herritarrengana helarazteko.

Diputazioak eta San Markos mankomunitateak ezkutuan eta isilpean eraman dute gaia orain arte. Lasaigarria den informazioa baizik ez dugu jaso horien aldetik, oso informazio urria eta zehaztugabea, gainera. Horien iritziz, errausketa da hondakinak tratatzeko dagoen aukera bakarra, zabortegiaren aldean abantaila asko ditu, birziklatzearen osagarria da, ez du apenas kutsadurarik eragiten eta energia sortzeko balio du. Amasakoek, ordea, zeharo kontrako iritzia azaldu zuten, eta banan-banan, datuak eta arrazoiak emanez, baztertu zituzten errausketaren aldeko argumentu guztiak. Gipuzkoan bi errausketa-planta egiten badira, sortzen ditugun hondakin guztiak, baita birzi-

klagarriak ere, erre egin beharko dira, bestela ezin baita erreketak mantendu; osasunarentzako oso kaltegarria den kutsadura sortzen dute, besteak beste, dioxinak; errausken zabortegiak egin beharko dira, oso kutsagarriak hauek ere; European errausketa-plantak ixten eta debekatzeko ari direnean, gurean eraikitzaera goaz, sekulako asmakizuna balitz bezala; interes ekonomiko ezkutuak daude proiektu honen atzean. Kontuan hartu behar da, gainera, errausketak gutxienez 10km-ko erradioan eragiten duela, gutxienez. Beraz, inguru honetan egiten bada, edonon izanda ere, horren eraginak denok harrapatuko gaitu.

Zubietan egiteko arriskua bene-benetakoa da, eta gaiaren garrantziak nahiz egoeraren larriak mugitzera behartzen gaitu. Informazioa jaso, kontrastatu, alternatibak aztertu, gure eskubideak defendatu... Geldirik egotea da azkenekoa. Horregatik dei egiten zaie interesa duten guztiei beren izena Zubietako Herri-Batzarreko kideei emateko. Ea denon artean erantzun egokia ematen dugun.

Zubietak



**XABIER  
ARREGI**

## Atalluk eta maileguk eragin dute udal aurrekontuen igoera

**K**anpotik ikusita, **Usurbilgo Udalaren aurrekontua asko igo dela esan daiteke. Azken urteotan, 6 milioi eurotan ibili da udal aurrekontua. Aurtengoa, aldiz, 12 milioi eurotik gorakoa da. Igoera horren atzean dauden arrazoiak argitzen saiatu gara.**

Atalluko operazioak hiru milioi eurotik gora igo du 2004ko udal aurrekontua. Hortxe dago igoera ekarri duen argudietako bat. Baina honek ez du aurrekontua desorekatzen. Gastuetan bezala, sarreretan ere aurrikusi baita. Honek zer esan nahi du, Udalak ordainduko duela Atalluko operazioa? Ez. Udalak bitartekari lana egingo du. Azken finean, enpresariak ordaindu beharrekoa kobratuko dute lur jabeek.

### Inbertsio ugari

Atalluko industria-gunea inbertsioen atalean sartuko genuke. Baina ez da egingo den inbertsio bakarria izango: Zubietako Babes Ofizialeko etxebizitzak, Zubietako pilotalekua bukatu, Kultur Etxe berria bukatu eta hornitu, Potxonea erai-

kina beritu eta hornitu, Udaletxea eraberritu, San Inazio kalea eta glorieta berria, Agerialdeko Ikastolan igogailu berri bat jarri, Santuenetik Beritzagoienara bidea argiztatu, Kiroldegian hainbat berrikuntza, proiektu berriak idatzi (Zahar Egoitza, Musika Eskola)...

Maileguetan topatu dugu aurrekontuaren igoera ekarri duen bigarren arrazoi nagusia.

### Inoizko mailegurik handiena

Inbertsio guztiei aurre egiteko, sekula hartu den mailegurik handiena aurrikusi da. Honek sarreraren egoeran pasibo finantziarioen igoera ekarri du. Dena den, mailegu hori aurten bertan amortizatzen hasiko da Udalak. Hala ere, mailegua 1.750.000 eurokoa izango da, eta 2004an amortizatu edo kitatuko dena bakarrik 374.340 eurokoa denez, defizit egoeran onartu da aurrekontua (1.366.160 euroko defizita). Honi aurre egiteko, Udalbatzak hiru hilabeteko epean, Plan Ekonomiko eta Finantziarioa onartu beharko du.

Neuri honekin lehen urtean agortua izan da legealdi osoko mailegu gaitasuna.

## Madrilgo atentatua gaitzetsiz



**M**artxoaren 11n egin zen ez Mohiko udalbatza plenoan, Eusko Alkartasunak, Euzko Alderdi Jeltzaleak, PSE-EEk eta PPK ahobatez gaitzetsi zuten Madrilen izandako sarraskia.

Hori arratsaldean izan zen. Iluntzeko 20:00etan, aldiz, jende asko bildu zen udal atarian egindako elkarretaratzean. Tartean ziren EA, EAJ-PNV eta PSE-EEko zinegotziak.

### HILERRI BERRIAN PANTEOIAK HARTZEKO ESKAERAK

**L**urrazpiko hilobiren bat eskuratze-ko asmoa duten herritarrek, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 26 egun naturaleko epea dute eskaera aurkezteko. Eskaera-orriak Udaletxean eskura daitezke. Eskatzen den hilobi bakoitzeko 42,07 euroko bermea jarri beharko da. Hilobiak 50 urteetarako utziko dira eta bakoitzaren prezioa 2088,66 eurokoa da, beraz, 6 hilobiko panteoi osoak 12.531,96 euroko prezioa du, Udalak onarturiko 2004ko Ordenantza Fiskalekin bat etoriz.

### NEKAZARITZARAKO UR TARIFA BEREZIA ESKATZEKO GARAIA

**N**ekazaritzarako ur tarifa berezia Eskatzeko garaia da. Eskatzaileek ondorengo baldintza bete beharko dute: beren ustiategiko Nekazal Lan Unitate kopurua 1 baino gehiago izatea. Horretarako Zarautzko Eskualdeko Nekazaritzako Bulegoan (Zarautzko agrarian) NLU kopuruaren ziurtagiria eskatu beharko dute eta udaletxean aurkeztu. Aurkezteko azken epea martxoaren 26an izango da.

### MARTXOAREN 31N SANTIXABEL JAIETAKO BILERA BERRIA

**M**artxoaren 31n, asteazkena, Santixabel Jaiak prestatzeko hirugarren bilera egingo da. 19:30etatik aurrera udal liburutegian.

**PATRI**

JATETXEA

- Eguneroko menuak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Telf: 943 36 27 25  
Kale nagusia, 14



**TXIRIBOGA**  
TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak





## Partehartze handiko hauteskundeak

**A**lderdien Legeak eta Madrilgo Sarraskiak baldintzatutako hauteskundeak izan dira hauek. Tentsio handikoak, bereziki, bozketa-egunaren bezperan. Madrilgo sarraskiak eragin zuzena izan zuen azken emaitzetan. Eta bereziki, Euskal Herrian. Iruñean eta Hernanin hil zirenen aldeko mobilizazioak Usurbila ere iritsi ziren.



Hauteskundeetako emaitzen jarraipena egin genuen martxoaren 14an. Gaueko 22:30etan Kongresuko emaitzak bildu genituen orritxo batean, eta kaxkoko tabernetan banatu genituen hainbat ale. Hurrengo goizean, gauza bera egin genuen prentsa-denda, okindegi eta kafetegietan.

Nabarmentzekoa partehartze maila, abstentzioa bakarrik %29,13koa izan baitzen. Boto-emaitzen kopurua, beraz, %70,87koa izan zen.



BEHEKO IRUDIAN, ANGEL BERROETA-REN ERAHILKETA SALATZEKO KONTZENTRAZIOA.

## Usurbil 2004

Boto-emaitzak guztira: 3.260  
Abstentzioa: 1.338

Alderdia	Botoak
EAJ-PNV	836
BATASUNA	722
PSE-EE(PSOE)	523
EA	462
ARALAR-ZUTIK	294
PP	198
EB-IU	153
PH	9
IR	5
DN	3
CDS	3
FE de las JONS	2
MSR	1
FE	0
FA	0
EKA	0
Zuriak	31
Baliogabeak	18

### Senaturako botoak Usurbilen

Hautagaia Alderdia	Botoak
Xabier Albistur Marín	787
Elena Etxegoien Gaztelumendi	756
Victor Bravo Durán	754
Mª del Coro Aizarna Rementería	EAJ-PNV 468
Alberto Buen Lacambra	466
Julia Hernández Vallés	455
Carolina Lago Pego	452
Iñaki Galdós Irazabal	446
Pello Urizar Karetxe	441
José Luis Alvarez Emparantza	229
María Isabel Castelló Goyenechea	210
Juan José Elizondo Arruti	207
Julia Tercero Isasi	182
Mª Isabel Ugarte Fernández	178
Fco. Javier Urbistondo Pardos	178
Beatriz García Gallastegi	156
Isabel Salud Areste	139
Juan Sánchez Vallejo	138
EB-IU	

### Gorteetarako botoen bilakaera Usurbilen

1996		2000		2004	
Alderdia	Botoak	Alderdia	Botoak	Alderdia	Botoak
HB	1.109	EAJ-PNV	509	EAJ-PNV	836
P S E -	570	P S E -	363	BATASUNA	722
EE/PSOE	550	EE/PSOE	250	PSE-EE/PSOE	523
EAJ-PNV	460	EA	242	EA	462
EA	206	PP	52	ARALAR-Zutik	294
PP	124	IU	30	PP	198
IU	13	Besteak	%66,0	IU	153
Besteak	%28,3	Abstentzioa	2	Besteak	23
Abstentzioa	1	Baliogabeak	15	Abstentzioa	%29,1
Baliogabeak	24			Baliogabeak	3
					18

2000. urtean, EH alderdiak abstentzioaren aldeko botoa eskatu zuen.

Alderdien Legea medio, Batasuna-Bergarako Proposamenaren botoak nulotzat hartu dira.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL



## ALKORTA AUTOZERBITZUA

FRUTAK

BARAZKIAK

ETXEKO PRODUKTUAK

KONGELATUAK

Beheko kalea, 4  
Telf: 943 36 57 42

# Atalluko urbanizazioa martxan jarri daiteke berriz ere

**U**dalak Olarriondoko urbanizazioa desblokeatu zuen duela hilabete batzuk. Honekin batera, Arau Subsidiario berriak bideratuta utzi zituen. Baina bada argitzeke dagoen beste proiektu garrantzitsu bat, Atalluko industria-gunea. 1992tik datorren proiektu hau oraindik gauzatu ez den arren, konponbidea begibistan dela esateko bada nahikoa arrazoi.

Trenbidearen bikoizketa proiektuan oinarrituz, 2002ko udazkenean Eusko Trenak Atalluko urbanizazioko zati bat geldiarazi egin zuen. Harrez gero, tirabira ugari izan da. Azken asteotako aha-leginei esker, Eusko Trenak helegitea bertan behera utziko duela dirudi. Beraz, urbanizazioa berriz martxan jartzeko aitzakiarik ez da. Hala ere, beste gauza garrantzitsu bat argitzea falta da: enpresa-erosleek lur jabeek zor dietena ordaintzea.

Atalluko lurren prezioek ere zeresan handia eman dute. Baina erosleek ez dute ihesbiderik. Ingemar, Gifor, Akaba-

Usurtek, Laser-Ken eta Fagor enpresek Udalarekin sinatutako hitzarmena argi da: erosle diren enpresek justiprezioan (Desjabetzapen Epaimahaiak ezarritako prezioa) zehaztutako dirua ordaintzeko konpromisoa hartu zuten. Are gehiago, justiprezioaren inguruan balio aldaketa emango balitz, ezarritako prezio berri-tua errespetatuko zutela onartu zuten erosleek.

Kontua da ezarri zen lehen prezioa baxua iruditu zitzaie la lur jabe batzuei, eta helegitea aurkeztu zuten. Helegitea edo errekurtsioa aurrera atera zen eta lurren prezioa igo egin zen. 1992an Atalluko operazioa martxan jarri zene-tik, ia bikoiztu egin da lurren hasierako prezioa.

## Lur-jabeekin zorretan

Oraindik orain, Atalluko urbanizazio-an biltzen diren enpresariak zorretan dira lur jabeekin. Soilik ordainketaren zati bat aurreratu dute eta justiprezioa-ren arabera ezarritako ordainketak ez dira oraindik egin. Desjabetzapen Epaimahaiak 2002ko uztailaren 11n fin-



INGEMARREN ONDOAN HASI ZIREN URBANIZAZIO-LANAK.

katuriko prezioak oso-osorik ordaintzeko deia egin zien Udalak 2003ko apirilaren 9an eginiko ez ohiko udalbatza plenoan: "bakoitzari dagokion kopuru-ruan, egindako konbenioan sinatutako-aren arabera".

Denborak aurrea egin duen arren, lur erosle diren enpresek oraindik ez dituzte lur jabeekin dituzten zorrak kitatu.

## Luze joan den gatazka baten kronologia

**1990.III.20.** Udalbatza Plenoak Atallu deituriko S-5 Alorreko Plan Partziala hasieraz onartu zuen.

**1990.XI.16.** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (221 zk.), Diputatuen Kontseiluak 1990eko urriaren 30ean Atallu deituriko S-5 alorreko Plan partziala onartu zuenaren iragarkia argitaratu zuen.

**1992.V.26.** Udalbatza Plenoak Atallu S-5 sektoreko Desjabetza Proiektua hasieraz onartzea eta jendaurrean jartzea erabaki zuen.

**1994.III.15.** Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean (51 zk.), Udalbatza Plenoak 1994ko otsailaren 22an Atallu S-5 Sektoreko Urbanizazio Proiektua hasieraz onartu eta jendaurrean jartzen zenen iragarkia argitaratu zuen.

**1994.VII.19.** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (136 zk.) Udalbatza Plenoak

1994ko maiatzaren 31n Atallu S-5 Sektoreko Urbanizazio Proiektua eta Atalluko S-5 Sektoreko Ihardun Batuneak Mugatzeko Proiektua behin betikoz onartu zituenaren iragarkia argitaratu zuen.

**1995.IX.26.** Udalbatza Plenoak Atallu S-5 Sektoreko Urbanizazio Proiektuaren aldaketa (Lehen eta Bigarren bereizketa edo segregatua) hasieraz onartu zuen.

**1995.X.9.** Eusko Tren-i 1431 irteera zenbakia daraman idatziarekin batera, Urbanizazio Proiektuaren Aldaketa (lehen bigarren segregatua) bidali zitzaion dagokion txostena eskatuz.

**1997.IV.17.** Nahitaezko Jabegokentzeetarako Gipuzkoako Lurralde-Epaimahaiak, Atalluko S-5 Sektoreko 1. Ihardun Batuneko lurak desjabetzeko prezio justua eman zuen: 3.759 pezeta metro karratuko.

**1997.VI.3.** Gobernu Batzordeak, Atalluko S-5 sektoreko 1 Ihardun batuneko urbanizazio obrak egiteko baimena eman zuen.

**2000.I.26.** Hitzarmen urbanistikoaren sinadura.

**2002.VII.11.** Gipuzkoako Lurraldeko Nahitaezko Desjabetzapen Epaimahaiak, 2002ko uztailaren 11n egindako bilkuran erabakitako justiprezioa jakinarazi zion Udalari: metro karratu bakoitzeko 8.507'52 pezeta (gehi %5eko, afekzioengatik).

**2002.XII.27.** Udalbatza Plenoak "Bilbo-Donostia trenbide-lineako usurbil-Añorga tartean trenbidea bikoizteko trazadura proiektua" Usurbilgo Udalerrian indarrean dagoen hiri Antolamenduaren aurkakoa jotzea erabaki zuen. besteak beste, Atallu industrialdean duen eraginagatik.



Kitatzen ez duten denboran, ordaindu beharrekoa igotzen doa, ezarritako prezioaz gain, atzerapenek eragindako interesak ere ordaindu beharko dituzte enpresa-erosleek.

#### Urbanizazio-obra geldidago

2002ko udazkena zen. Atalluko urbanizazio-obra martxan zen. Enpresarien komunitateak Altair enpresari eman zion obra zuzentzearen ardura, Antton Lete ingeniariari hain zuzen. Usurbilgo ur zikinak bideratzen dituen interzeptoreak Atallu erdi-erditik zeharkatzen zuen. Hori ekiditeko, aipatu interzeptorea erriberako bidetik eramatea proposatu zuen Antton Letek.

Eusko Treneko trenbidearen eremuetan sartzen zelakoan, Altair enpresako Antton Letek urbanizazioarekin aurrera egiteko baimena eskatu zion Eusko Treni. Eusko Trenek ezezkoa eman eta gainera urbanizazioaren zati bat geldiarazi zuen, trenbideari dagokion jabetza edo jabari publikoa 20 metrokoa dela argudiatuz. Gogoan izan Eusko Trenek trenbidea bikoizteko asmoa duela eta bigarren tunela egin nahi duela Bizkarre azpian, orain dagoen tunelaren alboan.

Iaz egindako NOAUA!n egin erreportajea, Jose Mari Bravo udal arkitektoa argi utzi zuen: "Ingemar Atalluko lehen unitatea egiten hasi zenean, Eusko Trenek bazuen Plan Sektorialaren berri. Gainera, Plan Sektorialaren behin betiko dokumentazioa eta Atalluko urbanizazio proiektua ere igorri zitaien eta ez zuten ezer esan".

Orain urtebete, udal ordezkariak Hirigintza Sailburu den Alvaro Amanekin bildu ziren. Eta Amannek arrazoia eman zion udal arkitektoari. 2003ko martxoaren 14ko NOAUA!n hau genion: "Eusko Trenek bere jarrera aldatu beharko du eta Atalluko urbanizazioa geldiarazteko errekurtsoa atzera botat".



INGEMAR ONDOAN HASI ZIREN OBRAK.

Nahiz eta Hirigintzako sailburu den Alvaro Amannek Udalarri arrazoia eman, nahiz eta Atalluko urbanizazio-obra zati bat geldiarazi zuen errekurtsoa atzera botatzeko konpromisoa hartu, Eusko Jaurlaritzak idatziz igorritako dokumentazioa ez zetorren Gasteizen hitz egindakoarekin bat. Egoerak blokeaturik jarraitzen zuen.

#### Eusko Jaurlaritzaren onespena

Duela aste batzuk, Luismari Ormaetxea alkatea eta udal arkitektoa berriz bildu ziren Eusko Jaurlaritzako Azpiegitura saileko zuzendari den Olazagirre jaunarekin. Bilera horretan ere erosle diren enpresarien ordezkariak izan ziren. Bilera horretan, aipatu zuzendaria Eusko Trenek ipinitako errekurtsoa kentzeko prest azaldu zen.

Orain, hitzekoa idatziz jasotzea baino ez da falta. Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Lan Sailaren baimena jasotzea baino ez da falta.

#### Konponbidea, enpresarien baitan

Honek zer esan nahi du? Eusko Trenen errekurtsoa ez dela jada aitzakia. Urbanizazio-lanak berriz ere martxan jarri daitezkeela, alegia. Baina enpresa-erosleek lurra eskuratzeagatik ordaindu beharrekoa ordaintzen dutenean amaituko da Atalluko "operazioa". Hau da, lur jabeek zor zaiena ordaintzen denean.

#### AURTEN KONPONDU DAITEKEEN ARAZOA

Atalluko operazioa asko luzatu da denboran. Zenbait unetan, guztiz korapilatuta egon da. Lurren prezioaren desadostasunak, enpresari erosleek aprobetxamendu gehiago nahi, Eusko Trenen helegitea... Arazo eta arrazoi askorengatik, atzeratuz joan da konponbidea. Gezurra badirudi ere, hilabete batzuen epean, normaltasunera itzuli daiteke dena.

Zergatik? Abuztuan amaitzen da Desjabetzapen Epaimahaiak erabakitako justiprezioa ordaintzeko epea.

2002ko uztailearen 11n, Gipuzkoako Lurraldeko Nahitaezko Desjabetzapen Epaimahaiak egindako bilkuran, metro karratuko 8.507'52 pezetako kopurua finkatu zuen (gehi %5ekoa, afekzioarengatik).

Erosleek ordainketa egiteko bi urteko epea dute. 2004ko abuztuan ordaintzen ez badute, bi gauza gerta daitezke:

1) lur jabeek lurren errebersioa eskatzeko eskubidea dute. Hau da, lur jabeek orain arte kobratutakoa itzuli beharko lukete baina lurra eskuratu eta berriz saltzeko aukera izango lukete. Beste edozeini eta beste baldintza batzuetan. Honek duela 12 urteko egoerara eramango liguke.

2) Lurren birtasazioa egiteko aukera. Birtasazioak lurren prezioa garestituko luke.

Enpresari-erosleei epeak agortu zaizkie. Horregatik, konponbidea begibistan dugula esan daiteke.

Beste gauza bat ere gerta daiteke: enpresariak Udalarekin eta lur jabeekin duten hitzarmena apurtu dezakete. Baina hori epaiketa bidea hartzea litzateke. Eta hor gaitzen ateratzeko boleto guztiak dituzte enpresariak. Egun zehaztu diren prezioak baino handiagoak lirake hitzarmena ez betetzeagatik enpresa-erosleek eragindako kalte-ordainak.

## Atalluko egoera desblokeatzeko hiru datu aipagarri

### Urbanizazioa martxan jarri daiteke

Eusko Trenek ipinitako helegiteak Atalluko urbanizazioko zati bat geldiarazi zuen. Baina errekurtsoa kentzeko prest azaldu berri da Eusko Jaurlaritzak. Beraz, urbanizazio lanekin jarraitu eta lur jabeek dagokiena ordaintzeko garaia heldu zaie enpresa-erosleei.

### Kokaleku egokia

Duela gutxi, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak izan ziren Udaletxean. Hauen ustez, Atalluko lurren prezioak interesgarriak izaten jarraitzen dute. Espazioa, kokalekua eta urbanizazioa gauzatzeko baldintzak onak baitira.

### Enpresentzat, interesgarria

Aurreko bi datuei beste bat gehitu behar zaio. Jakin dugunez, Atallun sartuta dagoen enpresa batek atzera egingo balu, badira sartzeko prest diren beste hainbat enpresa. Atalluren lokalizazioa eta operazio ekonomikoa interesgarria egiten zaie lako.

## Martxoaren 25ean, Udarregin, Zumarteko Kontzertu Didaktikoa

**U**rtero legez, Zumarte Musika Eskolak kontzertu pedagogikoak antolatu ditu. Oraingoan Andoaingo Udala Musika Eskolarekin batera arituko dira. Lehen saioa, Andoaingo Basteron izango da, martxoaren 23an. Bigarrena, Udarregi Ikastolako aretoan, martxoaren 25ean.

Esan bezala, lehen kontzertua Andoaingo Bastero Kulturgunean egingo da. Martxoaren 23an, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Oholtza gainera, Andoain eta Usurbilgo Musika Eskolako ikasleak igoko dira. Bastero Kulturgunean hauek hartuko dute parte:

Zumarteko Trikitilari Taldea, Zumarte-Orereta Abesbatza, Zumarte-Oinarri Abesbatza, Zumarteko Talde Instrumentala, Andoaingo Musika Eskolako Teklatu Taldea. Hori guztia, martxoaren 23an izango da, asteartez.



ANDOAINGO MUSIKA ESKOLAKO EKIN ARITUKO DIRA ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO LAGUNAK.

19:00etatik aurrera, Udarregin

Bi egun beranduago, martxoaren 25ean, Usurbilgo Udarregi Ikastolan saio hauekin gozatzeko aukera izango dugu:

Andoaingo Musika Eskolako Talde Instrumentalak, Andoaingo Musika Eskolako Eskusoinu Taldea, Andoaingo Musika Eskolako Musika Modernoko Taldea, Zumarte Musika eskolako Alboka Taldea, Zumarte Musika eskolako Musika Modernoko Talde Instrumentala.

Usurbilgo jaialdia, martxoaren 25ekoa, arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

## Usurbildarrak Lilatoian



USURBILDAR ASKO ARITU ZIREN MARTXOAREN 7KO LILATOIAN, TARTEAN, ARGAZKIAN AGERI DIRENAK.

### EZAGUTU EZAZU BIRZIKLATZEN IKASTEKO JOKOA, "RECIKLATHON"

**S**an Markos Mankomunitateak Sgehiago eta hobeto birziklatzen irakatsi nahi digu eta horretarako film interaktiboek osaturiko jokoa utzi du gure esku. Reciclathon du izena, eta bi web orrialdeetan topatuko duzue:

diariovasco.com eta guipuzkoanet/san-marcos web orrietan. Digital Vasca enpresak asmatu eta garatu du film hori. Lau kapitulutan banatuta dago, eta erabiltzaileak nahi duen ordenean ikus ditzake. Besteak beste, dokumentazioa eta gidoia dira nabarmentzekoak; "zure zaborra horrelakoa da", "saiatu orain baino zabor gehiago ez sortzen" eta antzeko mezuek ematen dizkio erabiltzaileari. Irudi bidezkoak eta grafikoak ere oso onak dira, eta San Markos hondakindegia eginkizuna eta lan egiteko modua azaltzen dituzte. Reciclathon filmaren amaieran, test bat egiten da ikasitako edukiak egiaztatzeko.

Costa Ricara joateko aukera

Hiru emanaldietako galdera guztiak ongi erantzunez gero, Costa Ricara joateko bidaia irabazteko aukera izango duzu: Costa Ricara bidaia 2 pertonen-tzat, 10 egunez eta gastu guztiak ordainduta.

Sariaren hautagaiek ondorengo ezau-garriak bete beharko dituzte:

1.- Reciclathonen 3 emanaldietako galdera guztiak ongi erantzun izana eta eskatutako datu guztiak utzi izana: izena, abizenak, posta elektronikoa eta herria.

2.- San Markoseko Mankomunitatea osatzen duten 10 herrietako batean bizitzea: Pasaia, Oiartzun, Errenteria, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Lasarte-Oria, Usurbil, Donostia eta Lezo.

3.- Garailearen datuak egiaztatuko dira eta hauek okerrak direla frogatuz gero kanporatua izango da, une horretan saria beriz ere zozketatuko delarik.

San Markoseko Mankomunitateak ezaugarri hauek betetzen dituzten erabiltzaileen artean zozketatuko du bidaia. Zozketa hirugarren emanaldia amaitu ondoren egingo da, eta garailearen izena diariovasco.com eta San Markoseko Mankomunitatearen webguneetan argitaratuko da. Beraz, adi egon!



# NOAUA! Kultur Elkartearen Batzar Orokorra Udarregi Ikastolan egingo da, martxoaren 27an

**2**003. urteak utzi diguna zaztertzeke ordua iritsi da. Bide batez, 2004. urteak ekar dezakeena aurrikusteko une egokia izan daiteke. Honetan guztian, gure elkartekeo bazkide zaren horrek baduzu zeresanik. Hau dela eta, **NOAUA! Kultur Elkartearen Batzar Nagusira** etortzeko gonbidapena luzatu nahi dizugu.

Besterik gabe Batzar Orokorrean parte hartzera animatzen zaituztegu, gure proiektua



AURTEN UDARREGI IKASTOLAN EGINGO DUGU BATZAR OROKORRA.

guztiona baita, 525 bazkideona.

Beste urte batzuetan udal pleno aretoan bildu izan gara. Aurten, ordea, Udarregi Ikastolako gela batean izango da batzarra.

**NOAUA!**  
**BATZAR OROKORRA**  
**Martxoak 27, larunbata**  
**10:30etan Udarregi Ikastolan**

**Gai zerrenda**

- 1.- 2003ko memoria eta balantzea
- 2.-2004ko egitasmoa; lantalde bakoitzaren proposamena eta onarpena
- 3.-Diru kontuak; 2003ko balantzea eta 2004ko aurrekontuaren proposamena eta onarpena.
- 4.-Zuzendaritza Batzordearen osaketarako proposamena eta onarpena.
- 5.-Galdera / erantzunak
- 6.-Hamaiketakoa

## Jada prest dira 2004ko udalekuak

Azken urteotan, Udako Kanpaldiak antolatu ditugu zenbait euskara talde eta kultur talderekin batera. Iaztik, ordea, Itakun Kultur Elkartea da udalekuen koordinazio lana egiten duena. NOAUA!k ere proiektu honetan hartzen du parte.

2004ko udalekuak jada martxan dira. Honakoan, hiru dira antolatu diren txandak:

- 1- Bernedon, uztailaren 10etik 18ra. LH3, 4 eta 5ekoentzat txanda bat uztailaren 2tik 11era. Matrikula: 210 euro.
- 2- Zangotzan, LH6 eta DBH1 eta DBH2koentzat txanda

bat. Matrikula: 240 euro.

- 3- Andoainen, uztailaren 2tik 14ra, DBH3 eta DBH4koentzat txanda bat. Matrikula: 250 euro.

Matrikulazioa osatzeko epea: apirilak 22. Matrikulatzeko garaian erdia ordaindu beharko da eta gainontzekoa ekainaren 11 baino lehen. Informazio gehiago NOAUA!ko bulegoetan.

Matrikularen barruan honakoa sartzen da: Aterpetxea eta janaria, garraioa, materiala, ekintza guztiak, aseguruia, begiraleen eta koordinatzaileen ordainketak...

### LATAILLADE

### ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8  
BEHERA

(943) 36 26 35- 36 33 48  
Mobila: 609 888021

### GALARRAGA

### garraioak



### TXURRUT edaritegia



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1  
Tel:943 36 00 80

### LIZARRALDE ileapaindegi mixtoa

Permanente intelijentea, rizoen kiribilketa kontrolatuarekin.



Solarium-a, estetika, depilazioa manikura, manikura frantsesa, pedikura, eta makilajea.



Zubiaurrenea, 5b Telf: 943 36 19 71

# Lan-uzteak amaitu dira Luzuriagan

**E**z da giro inguruko lantegietan. Uzineko greba luzea izan zen baina azkenean akordiora iritsi ziren nagusiak eta langileak. Gatazka, azken egunotan, Luzuriagan piztu da. Aurtengo konbenioa edo lan-hitzarmena negoziatzen hasi ziren urtarrilean; baina langileak ez zeuden gustura zuzendaritzak egindako eskaintzarekin. Lan-uzteak egin dituzte azken egunotan baina berriz ere normaltasun osoz ari dira lanean.

LAB sindikatuko Bittor Iribarek ekarri zuen albistea. Lan hitzarmenaren inguruan zuzendaritzak egindako eskaintzarekin gustura ez eta lan-uzteak egiten hasiak zirela. Antza denez, aurtengo negoziazioa ezberdina da, Luzuriaga-Fagor Ederlan enpresa kooperatiban bilakatze bidean baita. Horren haritik, enpresak egindako lehen hitzarmen-eskaintza ez zen beste urte batzuetako konbenioen mailara iristen. Bittor Iribarek adierazi digunez, "enpresaren hasierako eskaintza ez zen iazko KPI kopurura iristen. Eta ez zen lan-saioaren murrizketarik aurriztuzten". Azken aste hauetan, Luzuriaga aurrean elkarretaratu dira langileak. Eta honen ondorioz, produkzioa erabat geldituta egon zen lan-uzte orduetan. Baina berriz ere mar-



txan dira negoziazioak eta normaltasun osoz ari dira langileak lanean.

Bittor Iribarek esan digunez, "enpresa komitea ez dago kooperatibizazio prozesuaren aurka. Nahiz eta prozesu horretan komitea marjinaua sentitu den".

Bittor Iribar Luzuriagako langile eta LAB sindikatuko ordezkari da eta orain bertan bi aldeen arteko negoziazioak martxan direla aitortu digu: "martxoaren 16an eta 18an lan-uzteak egitekoak ginen baina bertan behera utzi ditugu".

Gogora ekarri behar da azken sei urtetan arazo handirik gabe sinatu dela lan-hitzarmena Luzuriagan. Adostasunera iristeko gai izan direla, alegia.

## Hauteskunde sindikalak egin ziren urtarrilean

**K**onbenio edo lan-hitzarmenaren inguruko hartuemanak azaroan hasi ziren hizketan. LAB sindikatuko kide den Bittor Iribarek adierazi digunez, "Luzuriagako zuzendaritzak, urtarileko hauteskunde sindikalak pasa arte atzeratu zuen negoziaketan". Hauteskudeetan CCOO izan zen nagusi. Lau ordezkari ditu enpresa komitean. UGTk, berriz, hiru ordezkari. Eta bina kide, ELAk, LABek eta ESKk.

# Udalekuetara Ziortzarekin

**Z**iortza Gazte Elkartek kanpaldia antolatzeke asmoa azaldu berri du prentsa-ohar baten bidez. Aurten ere, aukeratutako herria Errioxako Peñaloscintos izan da.

Honela dio Ziortzak igorri digun idatziak: "aurtengo ikasturtean ere taldeekin dihardugu, 12-18 urte bitarteko gazteekin. Gazte hauek sei mailatan daude banatuak eta batzuek beste talde bakoitzean 12 gazte dabilta.

Astean zehar ekintza desberdinak egiteaz gain, beste hainbat ekintza prestatu asmoz gabiltza taldeetako begiraleak eta horren berri eman nahi genuke.

Batetik, txango bat egiteko asmoa dugu talde guztientzat martxoaren 27an, larunbata. Printzipioz, asmoa elurretara joatea litzateke baina ez eskiekin baizik eta plastikoekin. Lekua zehazteke dugu oraindik eguraldiaren arabera. Beraz, animatu eta taldeko bilerak egitean eman izenak. Autobusaren prezioa bileretan jakin araziko da.

Bestetik, aurtengo ikasturte amaieran, Kanpaldia 2004 egiteko asmoa dugu. Beti bezala Errioxako Peñaloscintos herrian izango litzateke eta prestaketa lanetan ari gara. Komenigarria litzateke kanpaldira joateko asmoa duenak taldeko begiraleari jakin araziko balio. Animatu bai zu eta baita inguruan dituzun zure lagunak ere, denon artean zuek nahi dezuten kanpaldia egingo baitugu", adierazi digute Ziortza Gazte Elkarteko begiraleek.

## Bigarren eskuko materialarekin osatutako azoka antolatu du Decathlonek

**B**igarren eskuko kirol material azoka antolatu du Decathlon dendak. Martxoaren 22an hasiko den Trocathlon izeneko azoka honetan, baldintza onetan dagoen kirol materiala saltzeko aukera izango du edonork. Azoka honetan, beraz, jendeak eraman-dako materiala erosteko aukera dago.

Azoka hau, Decathloneko talde profesional batek antolatu eta garatu du eta gainera doanekoa da. Decathlon ez du komisio-rik kobratzen eta edozein kirolzaleri aukera ematen zaio bai materiala berritzeko, bai beste kirol berri batekin hasteko edo kirol produktuak eskuratzeko, betiere, prezio paregabeetan.

Kirol materialarekin osatzen den azoka hau urtean bitan antolatzen da, enpresaren 38 denda gehienetan: lehenengoa, martxoan; bigarrena, urrian.

Baldintza onetan dagoen kirol materiala

saltzeko asmoz dagoen edonork Decathloneko dendara jotzeko aukera du. Ondoren, material hau beste edozein bezerok erosteko aukera izango du.

Aurten bada berrikuntza bat: produktuak aldi berean jaso eta saldu ahal izango dira. Horrez gain, azken egunean, martxoaren 27an, produktu guztiak %20aren beherapena izango dute (aurrez enpresa eta bezeroak adostutako salmenta prezioetik).

Trocathlonean 18.000 artikulua jasotzen dira urtero eta 7.000 bezerok hartzen dute parte.

Trocathlon azoka martxoaren 22an hasiko da. Kirol materiala emateko epea martxoaren 26an amaituko da. Bigarren eskuko materialarekin osaturiko azoka horrek martxoaren 27ra arte iraungo du.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Decathlon dendara hurbildu edota webgune honetara jo: [www.decathlon.es](http://www.decathlon.es).

## Udarregi Ikastolako Mendi Taldeak Oriako ermita bisitatzeko irteera antolatu du

**M**endi talde bat osatu da Udarregi Ikastolan. Ikasleak eta hauen gurasoak biltzen dira talde honen baitan eta jada zeharkaldi batzuk eginak dituzte. Hurrena, martxoaren 21ean izango da, igandez. Honakoan, Oriako ermitara joateko asmotan dira.

Lasarte-Oriako Txartel Hotelaren aurrekaldean bilduko dira goizeko 9:15ean. Seme-alaba edo ilobekin batera, txango polit bat egiteko aukera paregabea. Ez da izena eman behar, edozein joan daiteke: zehaztutako orduan azaldu eta kitto.

## Euskal joko tradizionalak berreskuratzeko txapelketa antolatu dute Ikaspilotak eta Ikastolen Elkarteak

**E**uskal Joko Tradizionalak Berreskuratzeko Eratu, zaharberitu eta indartzeko xedea du txapelketa honek. Era honetan gureak diren jokoak suspertu nahi dituzte Ikaspilotak eta Ikastolen Elkarteak.

Jarduera osasuntsu honekin, euskal jendarte jarri nahi da harremanetan. Funtsean, tradizioaren transmisioa, modu natural batez bideratu nahi da: euskaraz eta praktikaz.

XIBA Euskal jolas, joko eta kirolen Topaguneak antolatu du txapelketa hau. Parte hartu ahal izateko gutxieneko adina, 16 urtekoa izango da. Parte hartzaileak, ezin izango dira 2000. urtetik hona, Herri Kirol Federazioko lizentzidunak izan.

Izena emateko epea laster amaituko da. Beraz, izena eman nahi duenak lehen baino lehen egin dezala.

Telefonoa: 943 44 47 02

e-posta: [xiba@ikastola.net](mailto:xiba@ikastola.net)

### ARABAKO IRUÑA-OKARA, ANDATZAREN ESKUTIK

**M**artxoaren 27ko astebuka-  
Meran, Arabako Iruña-Oka ezagutzeko aukera paregabea eskaini nahi digu Andatza mendi elkarteak. Goizeko 7:30etan irtengo dira pilotaleku atzetik. Izena emateko epea, martxoaren 20a, Txiriboga tabernan.

### DOMINA GEHIAGO JUDO TALDEARENTZAT

**U**surbilgo Judo Taldeak urrezko bost domina lortu berri ditu Gipuzkoako Txapelketa Infantilean: Eneritz Agoñes (-40 Kg), Aiora Arillaga (-44 Kg), Maialen Heras (-48 Kg), Irati Holgado (-52 Kg) eta Uxo Etxari (-63 Kg). Zilarra, Maddalen Cardenas (-52 Kg) eta Ane Perezentzat (+63 Kg); eta brontzea, Makarena Arrietarentzat (-57 Kg).

Hauek guztiak Durangon ospatu-ko den Euskadiko Txapelketan parte hartzeko plaza lortu dute.

Bi domina gehiago erdietsi ditu Usurbilgo Judo Taldeak Madril en eginiko Espainiako Junior Txapelketan: Xabier Pagola (-66 Kg) zilarra, Sergio Montes (-100 Kg) brontzea eta Irati Aruti (+78 Kg) 5. postua.


Xabier Pagola, laster, Zirkuito Europearrean hartuko du parte.

### MARTXAN DA II. ARETO FUTBOL TXAPELKETA


**U**surbilgo Futbol Taldeak bigarren urtez jarraian areto futbol txapelketa antolatu du. Apirilean hasiko da txapelketa baina izena emateko epea, aldiz, martxoaren 31n. Bi kategoria izango dira: mutilak (1998. urtea baino lehen jaioetakoak) eta neskak (13 urtetik gorakoak). Talde bakoitzean gehienez 12 jokalaria eman dezakete izena. Inskripzioa: mutilen talde bakoitzak, 120 euro. Neska talde bakoitzak, 60 euro.

Informazio gehiago jaso eta izena emateko tokia, Oiardo Kiroldegian.





Ea gai zaren dragoiaren arraultza guztiak dagokien kolorez margotzen. Animo eta aurrera!



Koloreak ongi ikusi al dituzu? Ea ba, orain, hauek nahastuaz, kolore berriak sortzen dituzun!

**Mix the colours**

Write the answers.

1 Mix **yellow** and **blue**.

What colour is the fish?



green

2 Mix **red**, **blue** and **yellow**.

What colour is the tree?



3 Mix **yellow** and **red**.

What colour is the bird?



4 Mix **blue** and **red**.

What colour is the flower?



Egilea: LH 2/3



**txirriStra**

**TABERNA**

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Tel: 943 36 04 66



**Untinea**

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

□□□□□□□□□□  
□□□□□□□□□□□□□□□□□□□□□□

# NOAUA!ko LEHIAKETA!!



## SARIA

Hasier Etxeberria-ren  
"ARRAINAK URA BAINO"

Anjel Lertxundi-ren  
"PIZTIAREN IZENA"

Edorta Jimenez-en  
"LAUDANOA ETA  
SUTAUSA"

Imanol Murua eta  
Humberto Unzueta-ren  
"SUETENA BELFASTEN"

Euskal lau idazle hauen LIBURU SORTA eder hau zozketatuko dugu bi galdera hauek ondo erantzuten dutenen artean. Animatu eta parte hartu!

1. Euskaraz dakiena, euskaraz mintzatzen duenari nola deitzen zaio?  
a) EUSKALKIA b) EUSKALDUNA d) EUSKALTZAIN
2. Euskara eta, oro har, euskal kulturarekiko zaletasuna duenari nola deitzen zaio?  
a) EUSKALDUNTASUN b) EUSKALTZALE d) EUSKARA

Erantzunak bidaltzeko azken eguna **MARTXOAK 26**

Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea,  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Noaua! Kultur Elkarteko buzoian  
E-maila: [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

177. lehiaketako erantzunak hauek dira:

1. Ze izenburu darara 2003an argitaratu zen Jesus Mari Artzeren inguruko liburuak? JESUS MARI ARTZE, TTAKUNAREN ESKU ISILA
2. Eta nor da liburu bonen egilea? JUAN LUIS ZABALA

Irabazlea **JUANI URBISTONDO** (Txokoalde) izan da. 28 cd-z osaturiko musika klasikoaren bilduma eder hau irabazi duzu. Jaso ezazu saria Noauako egoitzan. **ZORIONAK!**



## "Gipuzkoa Zure Esku" mahaiko jokia eskuratu nahi?

**M**ahai joko interesgarri hau udazkenean argitaratu zuen Elhuyar Fundazioak. Orain hasi eta ekaina bitartean, hilean behin mahai joko hauetako bat zozketatuko dugu NOAUA! aldizkariko irakurleen artean. Nola hartu parte? Hilero, galdera bat egingo dugu. E-postaz jasotzen ditugun erantzun guztien artean, mahai joko bat zozketatuko dugu. Ez esan zaila jarri dizugunik!

Elhuyar edizioak argitaratu du "Gipuzkoa zure esku" izeneko mahai jokia. Funtsean, gazteei zuzenduriko jokia da, aisialdian euskaraz aritzeko Elhuyar Fundazioak egin nahi digun eskaintza paregabea. Mahai joko honek (CD Rom batekin ere osatzen dena) bi ardatz nagusi ditu:

- "Gipuzkoa zure esku: Maju robot suntsitzaileen aurka". Gipuzkoako hainbat herri zeharkatzen dituen abentura grafikoa da.

- "Gipuzkoa zure esku: galdera-lasterketa", mahaiko jokia. Argitalpen didaktiko eta atsegin honi esker, jolasean arituz, Gipuzkoaren nondik norakoak ezagutuko ditu jokariak. Bakarrik ordenagailuan, nahiz familiarekin edo lagunekin jolastaz gain, joko honek Gipuzkoako herriak, historia, kultura, inguruena, ohiturak eta abar ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Hilero joko bat zozketatuko dugu



Galdera bat egingo dugu eta erantzun egokia bidaltzen dituztenen artean mahai joko bat zozketatuko dugu. Erantzunak soilik e-postaz jasoko ditugu: [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com). Datoren alean jakinaraziko dugu irabazlearen izena.

**GALDERA. Zein izen du robot suntsitzailearen aurka ari den protagonistak?**

**ERANTZUNA.** \_ \_ \_ \_

([erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com) helbidera bidali)



## Goardiako farmaziak

**Martxoak 18, osteguna**

E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte  
G: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

**Martxoak 19, ostirala**

E: Gil, Nagusia 24 Lasarte  
G: Oa, Kontzeju Zaharra 1 Usurbil

**Martxoak 20, larunbata**

E: Gil, Nagusia 24 Lasarte  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
G: Diaz, Nagusia 19 Andoain

**Martxoak 21, igandea**

E: Gil, Nagusia 24 Lasarte  
G: Diaz, Nagusia 19 Andoain

**Martxoak 22, astelehena**

E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte  
G: Tanko, Idiazabal 39 Urnieta

**Martxoak 23, asteartea**

E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte  
G: Bulnes, Grupo Etxeberri 1 Hernani

**Martxoak 24, asteazkena**

E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte  
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

**Martxoak 25, osteguna**

E: Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte  
G: Correa, Perkaiztegi 8 Hernani

**Martxoak 26, ostirala**

E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte  
G: Aizpuru, Latxunbe Berri 11 Hernani

**Martxoak 27, larunbata**

E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte / Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil  
G: Zatarain Elizondo 6 Andoain

**Martxoak 28, igandea**

E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte  
G: Zatarain Elizondo 6 Andoain

**Martxoak 29, astelehena**

E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte  
G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani

**Martxoak 30, asteartea**

E/G: Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 31, asteazkena**

E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte  
G: Bulnes, Grupo Etxeberri 1 Hernani

**Apirilak 1, osteguna**

E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte  
G: Zatarain Elizondo 6 Andoain

**Apirilak 2, ostirala**

E: Gil, Nagusia 24 Lasarte  
G: Ansa, Ondarreta 8 Andoain

**Apirilak 3, larunbata**

E: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
E/G: De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Apirilak 4, igandea**

E/G: De Miguel, Nagusia32 Lasarte  
E:Egunez G:Gauzez E/G:Egunez eta gauzez

2004ko egutegi osoa [noaua.com](http://noaua.com) helbidean

Zubieta-Donostia  
TST autobusak

ASTEGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
7:55\*/ 9:30(T) / 13:15(T) / 14:35\*(T) / 19:15(T)  
Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
7:15\* / 9:00/ 12:45(T) / 13:45\*/18:45

LARUNBATETAN  
Zubieta-Donostia  
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)  
Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) / 21:35 (T)  
Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) / 21:00 (T)

\* Eskola egunetan  
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

## Datorren Noaua!

## Apirila

As.	Ar.	Az.	Oa.	Ost.	La.	Ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29			

Hurrengo alea

## Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia ..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).... 36 38 95
- Oiardo kiroldedia..... 37 24 98
- Zumarte ..... 37 15 94
- Etumeta ..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A. .... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate Egoitza ..... 36 63 40
- Eusko Tren ..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero)

47 09 76



## Oharrak

## Txerrimunik ordainetan

### ETXEBIZITZA

- Alokairuzko pisu baten bila nabil, Usurbilen edo inguruan, konpartitzeko. 696 993 089.
- Kaxkoan etxebizitza bat salgai. 670 902762.
- Pisua alokatu edo konpartitu nahi nuke. Nirekin harremanetan jartzeko deitu, 647 973 844.
- Estudio bat edo apartamendu bat alokatu-ko nuke. Tf: 677 082 305.
- Alokairuzko etxe baten bila gabiltza. 670 532 443.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendu-erosiko nuke. 943 364469.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxiak saltzen ditut Kale Nagusian: 30 m-koa, 18.000 euro. 15 m-koa, 7.800 euro. Telefonoa: 943 37 23 68.
- Citroen Saxo gorria salgai. 60.000 km, 7 urte. Garajein zaindua, motorra eta txapa egoera oso onean. 943 36 56 10.
- NITRO markako snoweko fijazioak dauzkat salgai, prezio interesgarria. Interesatuak deitu 653728059 telefonora.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Umeak zainduko nituzke, edozein ordutegian. 943 37 10 32.
- Eskolan laguntzarik behar al duzu? Dei izeadazu 943 360 754 (Ana).
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556.
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. 647 220 966 (Mari Karmen).
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan, Deitu hona: 652 757 495.

### Lan-eskaintzak

- Martxan jartzeko prest dagoen kopiagintza eta grafika zerbitzuetako negozio batetarako sozioak behar dira (neskak nahiago dira). Interesatuak deitu Tf: 687470177.
- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217.
- Ume bat arratsaldetan bi orduz zaintzeko norbait behar dut. Deitu telefono honetara: 679675074

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Otsailaren 26an kolpea eman zidaten kotxean, Bordaberri Kalea eta Artzabalgo etxeen artean aparkatuta zegoen Renault Espace berdean. Argibiderik baduzu deitu izeadazu mesedez: 943 36 32 90.
- Duela gutxi koilarea galdu nuen Iturralde botikatik kaxkora bidean. Topatu baduzu deitu 943 36 11 15 telefono zenbakira.
- Urbilgo bus geltokian argazki marko handi bat tela puska bat "punto de cruz"-ean egina ahaztu genuen. Topatu baduzu deitu: 943 37 20 34.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Munalurra auzoan (Olarrondo inguruan). Topatu baduzu deitu 943 36 27 79 telefono zenbakira.
- Zilarrezko brotxe bat galdu nuen San Esteban kaletik, okindegia eta supermerkatu bidean. Topatu baduzue deitu 943371237 telefonora.
- Neska bat eskeintzen da edozein lanetarako. Deitu 943364659 telefono zenbakira. (Arantxa)
- Mobietar telefono mugikor bat aurkitu dut Zubietan Etxetxo Lorategiaren inguruan. Galdu duenak dei dezala 943 36 68 56 telefonora.

**Zorionak aitona Miguel!**  
Martxoaren 23an beteko dituzu urteak. Ondo pasa eguna eta muxu bat etxeko- en partetik. Batez ere Ainhoa, Jon eta Andoniren partez!



**Zorionak Ane!**  
Martxoaren 26an beteko ditu 16 urte gure koadrilako panpoxak. Muxu handi bat kuadrilako- en partez eta segi beti bezala zure irribarre horrekin.



### JAIOTZAK

- Erika Arbeola Tena 2004ko otsailaren 18an.
- Ekaitz Ibargoien Martinez 2004ko martxoaren 3an.

### HERIOTZAK

- Manuel Jose Herrero Aranguren 2004ko martxoaren 2an hil zen.

\* Usurbilgo Bake Epaitegiko datuak.

Txerrimunik ordainetan - Oharrak

Doaneko zerbitzuak dira.

Gure bulegora ekarri edo postaz bidali aipatu nahi duzun oharra.

Noaua! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3  
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil  
erredakzioa@noaua.com

**MIKEL  
IZAGIRRE**

**ELEKTRIZITATEA**

Goiz Argi etxea, 37  
Kalezar

Tel: 943 36 50 95- 609 06 8111

Zure publizitatea Noaua!-an agertzea nahi baduzu jar zaitez gurekin kontaktuan: 943 360 321 telefonoan edota 679 471 831 mobilera deituz. Korreo elektronikoz ere jar zaitezke gurekin kontaktuan: publizitatea@noaua.com

**USURBIL  
TABERNA**

- Plater konbinatuak
- Pintxo beroak
- Sandwich-ak
- Ogitartekoak

Aritza kalea 20, 943 36 57 26

**JOSETXO IKATZETA**



Iturgintza

TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

**Igeltseritza**

**URDANTZI C.B.**

□□□□□□□□□□  
□□□□□□□□  
☎ □□□□□□□□□□

**JUANTXO**  
burdindegia  
kale nagusia 10 Usurbil  
37 00 08

**JOSUE  
ARANZAZISTROKI**

**IGELTSE-  
RITZA  
eta  
PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Tel: 943 36 05 50  
Kalezar 606 37 21 05

## Agenda

MARTXOAK 27, LARUNBATA

- NOAUA!ko Batzar Orokorra. 10:30etan Udarregi Ikastolan.

MARTXOAK 25, OSTEGUNA

- Usurbilgo Udarregi Ikastolan Kontzertu Didaktikoa, 19:00etan, Zumarte eta Andoaingo Musika Eskolen eskutik.

MARTXOAK 22-27

- Trocathlon. Bigarren eskuko kirol material azoka Decathlonen.

MARTXOAK 27, LARUNBATA

- Arabako Iruña-Okara mendi irteera, Goizeko 7:30etan, irteera pilotaleku atzetik.

MARTXOAK 28, IGANDEA

- Ordubete aurreratu behar dira aurrelariak.

## 1954ko kintoen bazkaria

1954. urtean jaiotakoek, 50 urte bete-ko dituzten honetan, badute biltzeko aitzakia. Bazkaria antolatu nahi da eta parte hartu nahi duenak deitu dezala Arriaga ile-apaindegira: 943 36 66 83 (ordutegia, 08:30-12:30/ 14:00-20:00).

## KZGUNEA

\*OINARRIZKO INTERNETA (20 ORDU)

Martxoak 22-Apirilak 3. 18:00-20:00.

\*NAGUSIWEB (10 ORDU)

Martxoak 22-26. Goizez, 11:00-13:00.

Martxoak 29-Apirilak 3. 16:00-18:00.



## Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

□□□□□□□□□□□□□□□□  
□□□□□□□□□□□□□□□□  
□□□□□□□□□□□□□□□□

□□□□□□□□□□□□□□□□  
□□□□□□□□□□□□□□□□

## Kalkos kopisteria



Fotokopiak

Fotokopiak koloretan

Plastifikazioak ( DIN A2 )

Fax zerbitzuak ( jaso-bidali )

Planoen kopiak ( AO arte )

Ordenadoreko lanak

Enkuadernaketak ( wire-a, kiribilak, liburuak )

Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea  
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**



## MAHUKA


Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3  
Telf: 943 36 11 06

## ERRAZKIN Igeltseritza orokorra

Kale Nagusia, 1  
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25  
Santutenea Mob: 629 42 05 65

## Literaturaren txokoa



## “Arbelaren gainean”

Fikzioaren eta Fsaiakeraren arteko muga jolasean dabil egilea eta, era berean, oroitzapen pertsonala eta kolektiboa gurutzatzen ditu etengabe, familia baten eta herri txiki baten bitartez kontatzen baitira XX. mendeko gertakari esanguratsuenetakoak, hala nola industriaren gorakada eta krisia, edo nazionalismoaren sorrera eta beranduago borroka amaturarena, gai eta garai desberdinak nahasteko Mendigu-renek eraku-



tsia duen abilezia horrekin.

Obra berezia da “Arbelaren gainean”, beste idazle ezagun eta ezezagun askoren testuak bereganatzen eta komentatzen dituena, literaturaren magia eskuz esku transmititzeko eginkizun sekretu eta eder horretan lagunduko duen esperantzaz.

### Fitxa teknikoa

**Liburua:** “Arbelaren gainean”

**Egilea:** Xabier Mendiguren Elizegi

**ISBN:** 84-9783-099-7

**Orrialdeak:** 160 or.

**Neurriak:** 21,5 x 14 cm

## Egin kontu

## Martxoaren 28an, igandea, ordubete aurreratu ordularia

Gaur egun ezagutzen dugun udako Ordutegia 1973. urteko petrolio-krisiaren ondorio zuzena da. Harrezkero, martxoan ordularia ordubete aurreratzeko urrian ordubete atzeratu. Horrela, udan, beranduago arte izaten da egun argiz eta energia asko aurreratu da. Dena dela,

udako ordutegiaren gainean eztabaida handiak daude. Jende guztiak ez du uste hainbeste energia aurreratu denik, eta osasun-arazoak sortzen dituela ere esaten da.





# OSASUN GIDA



## ODONTOLOGIA

Usurbilgo Hertz Klinika

Fernando Perez-Mosso Nenninger  
Antonio Bernal Ruiz de Oña

Kale Nagusia, 2 1.C4 - Telf: 37 08 78

## FARMAZIAK

Oa farmazia

Homeopatia

Formulaciòn magistral

Kontseju zaharra, 11 Telf: 37 60 76

Isidoro Iturralde farmazia

Homeopatia

Formulacion magistral

Borda berri, 1 Telf: 36 33 95

## OSASUN MENTALA

Usurbil sendategia S.L.

Sanesteban auzoa, 48

Telf: 36 11 24 - faxa: 36 28 98

## LOGOPEDAK

Logopeda zerbitzua

Hizkuntz arazoak

Zentzumen arazoak

Ahots arazoak { Noduloak  
Disfoniak

Mobila: 679 660 919

## MASAJISTAK

Kima masaje lekua

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea, Lasarte-Oria, Telf: 36 61 97

Mavir masaje lekua

Imanol Rubio, esperientzi handiko

masajista

Muna-lurra, 6 - 1B Telf: 37 26 58

## KIROLA

Usurbilgo kirol patroniatua

Ikastaroak { igerilekua  
gimnasioa

Zerbitzu pertsonalizatuak

Masaia

Oiardo kiroldegia, Gernika ibilbidea, 9

# www.noaua.com

## Informazio interesgarriena gure web gunean



Eguraldi iragarpena, lan merkatua,  
hemeroteka, agenda, albisteak  
inkestak, foroak, osasun zerbitzuak,  
NOAUA! aldizkaria...  
eta orain, edizio jarraitua.  
Momentuoro eguneratutako  
albisteak.



# HASI DA AURTENGO TXOTX GARAIIA!



**Araeta**



*Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera!*

Tel: 943 36 20 49 - 943 36 66 04  
Faxa: 943 36 60 73  
Arbuzubiidea 20.160 ZUBIETA  
[www.araeta.com](http://www.araeta.com)

*Fain duzu aurtengo sagardoa. Txotx!*



**SAIZAR**  
Sagardotegia

Kalezar Auzoa, 39

20.170

USURBIL  
G.I.P.U.Z.K.O.A

Tel: 943 362 228

[www.sidrassalzar.com](http://www.sidrassalzar.com)



**TXOTXETIK**  
eta botiletan  
salgai

Urte guztian egunero irekita  
astelehenetan ezik.

**AGINAGA**

**SAGARDOTEGIA**



Tel: 943 36 67 10 - 37 06 68 AGINAGA

**ASTIAZARAN**

SAGARDOTEGIA



Zubieta, telf: 943 36 12 29

*Irudi berri bat  
denboraldi berri batentzako*

-Igande gauetan itxita

**Egin txotx!**